

**SUPER LK KONTUA LOTURAREKIN KONTUARI BURUZKO KONTRATU AURREKO INFORMAZIOA**

**ARRISKU-ADIERAZLEA**

**1/6**

Zenbaki horrek produktuaren arriskua adierazten du: 1/6 zenbakiak arriskurik txikiena adierazten du eta 6/6 zenbakiak handiena.

Produktuaren sailkapena, 2015eko azaroaren 4ko ECC/2316/2015 Aginduaren, finantza-produktuen gaineko informazioa emateko betebeharreri eta produktu horiek sailkatzeari buruzkoaren, arabera.

Argibideak ematea da agiri honetako informazioaren helburu bakarra.

**Letra lodiz eta etzanez** nabarmendutako informazioak garrantzi handikoak dira.

**KREDITU-ERAKUNDEA**

**Izen komertziala:** CAJA LABORAL POPULAR COOP. de CRÉDITO / LABORAL Kutxa  
**Egoitza soziala:** Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua, zk.g., 20500, Arrasate, Gipuzkoa  
**Telefono-zenbakia:** 900 929 029  
**Helbide elektronikoa:** kontaktatu@laboralkutxa.com

**KONTUAREN AZALPENA**

Eurotako ageriko aurrezki-kontua, erabateko erabilgarritasuna duena, 60 urteko edo gehiagoko bezeroei zuzendua. Bezero bera gehienez bi hobaridun kontuetan izan daiteke titular (Plus Kontua eta Super LK konbinatuz edo bi Super LK kontu izanez).

**SARRERAK EGITEKO MODUA**

- Eskudiruzko sarrerak LABORAL Kutxaren bulegoetan eta kutxazain automatikoetan
- Nomina, pentsioa, langabezia-laguntza eta abar helbideratzea
- Transferentziak eta intsuldaketak
- Txekeak sartzea

**SALDOA ERABILTZEA**

- Eskudirua ateratzea LABORAL Kutxaren bulegoetan eta kutxazain automatikoetan
- Ordaintzeko eragiketak:
  - o Helbideratutako zordunketak
  - o Transferentziak eta intsuldaketak, baita agindu iraunkorrak ere, LABORAL Kutxaren bulegoetan eta kutxazain automatikoetan edo Online Bankaren bidez
  - o Kontuari lotutako txartelen bidez egindako ordainketa-eragiketak

**LOTUTAKO ZERBITZUA: ZORDUNKETA-TXARTELA**

Kontuaren titularrak kontuari lotutako zordunketa-txartela eskatu ahal izango du, eskudirua ateratzeko eta ordainketa-eragiketak egiteko.

Zerbitzuari buruzko kontratu aurreko informazioan eta kontratu-informazioan zehazten dira zerbitzuaren erabilera-baldintzak, kontserbazioa eta kostua.

**LOTUTAKO ZERBITZUA: KREDITU-TXARTELA**

Kontuaren titularrak kontuari lotutako kreditu-txartela eskatu ahal izango du, eskudirua ateratzeko eta ordainketa-eragiketak egiteko.

Zerbitzuari buruzko kontratu aurreko informazioan eta kontratu-informazioan zehazten dira zerbitzuaren erabilera-baldintzak, kontserbazioa eta kostua.

**KONTRATUAREN IRAUPENA**

***Super LK kontuaren kontratuak iraupen mugagabea du.***

**KOMISIOAK ETA GASTUAK**

- Mantentze komisioa: 0 €.

Mantentze-komisioa 0 € izateko titularretako batek eskakizun hauetakoren bat bete behar du:

1. Titularretako batek kontuan oinarritzko banku-eragiketak helbideratuta badauzka. Baldintza hori betetzat emango da titularretako **batek eskakizun hauek guztiak** betetzen dituzenean:

a) Nomina edo langabezia-prestazio kontzeptupean jasotako diru-sarrerak, azken hiru irakurketetatik gutxienez bitan, ondorengo zehaztapen hauen arabera:

- Hileko irakurketak: titular bakoitzaren sarreraren irakurketa egongo da hilero. Irakurketa horrek aurreko hilaren 15etik hil horren 14ra bitarteko egunak hartuko ditu barne.
- Konpentzazio Elektronikoko Nazio Sistemaren (SNCEK), Gizarte Segurantzaren, Eskuduntza duen Erakunde ofizial baten edo zuzenean lansaria ordaintzen duen enpresaren eskutik jasotako nomina edo langabezia-prestazio kontzeptupean jasotako diru sarrerak soilik hartuko dira kontutan.
- Hileko irakurketa bakoitzeko sarreraren baturak, gutxienez, 600 € eman behar ditu.

b) Likidatu beharreko aldiari dagozkion hiru hiletatik, gutxienez, bitan, 100 eurotik gorako erosketak egin behar dira txartel bidez.

Bezero autonomoen kasuan, aurreko betebeharez gain, Gizarte Segurantzaren autonomoen ordainagiria Super LK Kontuan helbideratua izatea ere eskatuko da.

2. Hilean gutxienez 400 €-ko erretiro-pentsioa Laboral Kutxan helbideratuta izatea. Gizarte Segurantzaren bidez edo eskumena duen erakunde ofizial baten bidez jasotako erretiro-pentsioak bakarrik hartuko dira kontuan.

3. Gutxienez 30.000 eurotako gutzizko aurrezkiak aurkeztea Laboral Kutxako aurrezki edo inbertsioetan (ordainketa-kontuak, aurrezki-kontuak, eperako gordailuak, inbertsio-funtsak, pensio/aurreikuspen-planak, balioak, aurrezki-aseguruak edo laboral Kutxako kapital soziala). Ondorio horietarako, likidazioaren aurreko hilabeteko azken egun balioduneko saldoa hartuko da kontuan.

4. Kontuaren titularretako batek urtebete baino gutxiagoko antzintasuna izatea Laboral Kutxaren bezero gisa.

Hala ere, likidatu beharreko hiruhilekoan kontuak zorpeko saldoak izan baditu, puntu honetan aurreikusitako salbuespenak ez dira aplikatuko.

- Interes-tasa zorduna: Zorpekoaren kasuan, interes zordunak balorazio-daten arabera likidatuko dira egunero, eta 3 hilean behin zordunduko dira.

Tasa nominala: % 7,298 **UTBa: % 7,500**

***Informazio gisa esan behar da, urteko tasa baliokidea (UTBa) Espainiako Bankuaren 5/2012 Zirkularrean -2012ko uztailaren 6ko BOE- adierazten denaren arabera kalkulatu dela.***

Kontsumitzaileei aplikagarria zaien UTB zorduna mugatuta dago: gehienez ere diruaren tasa legala bider 2,5 izango da.

Likidazio-aldia: hiru hilean behingoa

Likidazio-egunak: 02-28, 05-31, 08-31, 11-30

- Informazioa bidaltzearen komisioa:
    - o Kontuko mugimenduei buruzko informazioa Postamail zerbitzuaren bidez bidaltzea doakoa da.
    - o Kontuko mugimenduei buruzko informazioa ohiko postaren bidez bidaltzeagatik komisio hauek kobratuko dira, aukeratutako maiztasunaren arabera:
      - o Hilean behin: doan.
      - o Egunean behin (\*):3 € likidazio-aldiko.
      - o Hamabost egunean behin (\*\*):2 € likidazio-aldiko.
      - o Egunean eta hamabostean behin bidaltzeagatik, gainera, 0,34 €-ko komisioa kobratuko da laburpen bakoitzeko. Likidazio-aldi bakoitzeko lehen 5 laburpenak salbuetsita egongo dira.
- (\* ) Laburpenean jasotzeko moduko mugimenduak dauden egunetan.  
(\*\* ) Hil bakoitzaren 1ean eta 15ean, edo, jaiegunak badira, hurrengo egun baliodunetan.

## **ORDAINKETA**

ITNa: % 0 (**UTBa: % 0**)

**Informazio gisa esan behar da, urteko tasa baliokidea (UTBa) Espainiako Bankuaren 5/2012 Zirkularrean -2012ko uztailaren 6ko BOE- adierazten denaren arabera kalkulatu dela.**

## **KONTRATUA SUNTSIARAZTEA**

LABORAL Kutxak eskubidea izango du kontratua edonoiz suntsiarazteko. Kasu horretan, 2 hilabete lehenago jakinaraziko zaio titularretako edozeini, eta, epealdi hori igarotakoan, kontuak ez du interesik sortuko. Bezeroak saldoa eskuratu beharko du, zenbateko osoa hartuko duen txeke edo ordainagiri bakar baten bidez.

Titularrak kontua ixteko eskatu ahal izango du, aurrez ohartarazi gabe; halere, LABORAL Kutxak eskubidea izango du kontuaren likidazioa eta saldoaren itzulketa geroratzeko, kontuari lotutako ordainbideen bidez indarrean dauden eragiketak zorduntzeko behar den denboran. Titularrak itzuli egin beharko ditu libreta, txeke-liburuxka, kreditu- eta zordunketa-txartelak eta kontuan helbideratutako gainerako ordainbideak.

## **BALDINTZAK ALDATZEA**

LABORAL Kutxak eskubidea izango du komisio berriak ezartzeko edo agiri honetan jasotako interes-tasak aldatzeko. Aldaketak, bezeroarentzat onuragarriagoak ez badira, indarrean jarri baino 2 hilabete lehenago ezagutaraziko zaizkio, ohiko postaren bidez, titularretako edozeinek LABORAL Kutxari adierazi dion helbide elektronikora bidalitako mezuzaren bidez edo edozein baliabide elektronikoko edo telematikoren bidez, hala nola telefono mugikorrera bidalitako SMS bidez edota jakinarazpena egiten den unean legez indarrean dagoen beste prozedura baten bidez.

Bezeroak uko egiten dio, berariaz, adierazitakoa ez den beste abisu-epe bati.

Titularrak aldaketa horiek onartzen dituela ulertuko da, aldaketak indarrean jartzeko proposatutako egunaren aurretik bere desadostasuna adierazten ez badu.

Titularrak aldaketa horiek ez dituela onartzen adierazten badu aldaketok indarrean jartzeko proposatutako egunaren aurretik, kontratua inolako kosturik gabe suntsiarazi ahal izango du, eta aldaketa indarrean jartzeko aurreikusitako egunaren aurreko edozein unetatik aurrera izango du eragina.

**GORDAILUEN BERME-FUNTSA**

CAJA LABORAL POPULAR COOP. de CRÉDITO 2011ko urriaren 14ko 16/2011 Errege Lege Dekretuaren bidez sortutako Gordailuen Berme Funtzari dago atxikita, eta gordailugile bakoitzari 100.000 euroko zenbatekoa bermatuko dio, gehienez, dirutan egindako gordailuetarako.

**BANKU-KONTUAK INTSULDATZEKO PRINTZIPIO ERKIDEAK**

CAJA LABORAL POPULAR COOP. de CRÉDITO «Banku-kontuak lekualdatzeko printzipio erkideetara» atxikita dago. Europako Banku Industriaren Batzordeak (EBICEk) Europar Batasun osoan aplikatzeko sortutako printzipioak dira horiek.

**SUPER LK KONTUA LOTURARIK GABE KONTUARI BURUZKO KONTRATU AURREKO  
INFORMAZIOA**

**ARRISKU-ADIERAZLEA**

**1/6**

Zenbaki horrek produktuaren arriskua adierazten du: 1/6 zenbakiak arriskurik txikiena adierazten du eta 6/6 zenbakiak handiena.

Produktuaren sailkapena, 2015eko azaroaren 4ko ECC/2316/2015 Aginduaren, finantza-produktuen gaineko informazioa emateko betebeharreri eta produktu horiek sailkatzeari buruzkoaren, arabera.

Argibideak ematea da agiri honetako informazioaren helburu bakarra.

**Letra lodiz eta etzanez** nabarmendutako informazioak garrantzi handikoak dira.

**KREDITU-ERAKUNDEA**

**Izen komertziala:** CAJA LABORAL POPULAR COOP. de CRÉDITO / LABORAL Kutxa

**Egoitza soziala:** Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua, zk.g., 20500, Arrasate, Gipuzkoa

**Telefono-zenbakia:** 900 929 029

**Helbide elektronikoa:** kontaktatu@laboralkutxa.com

**KONTUAREN AZALPENA**

Eurotako ageriko aurrezki-kontua, erabateko erabilgarritasuna duena, 60 urteko edo gehiagoko bezeroei zuzendua. Bezero bera gehienez bi hobaridun kontuetan izan daiteke titular (Plus Kontua eta Super LK konbinatuz edo bi Super LK kontu izanez).

**SARRERAK EGITEKO MODUA**

- Eskudiruzko sarrerak LABORAL Kutxaren bulegoetan eta kutxazain automatikoetan
- Nomina, pentsioa, langabezia-laguntza eta abar helbideratzea
- Transferentziak eta intsuldaketak
- Txkeak sartzea

**SALDOA ERABILTzea**

- Eskudirua ateratzea LABORAL Kutxaren bulegoetan eta kutxazain automatikoetan
- Ordaintzeko eragiketak:
  - o Helbideratutako zordunketak
  - o Transferentziak eta intsuldaketak, baita agindu iraunkorrak ere, LABORAL Kutxaren bulegoetan eta kutxazain automatikoetan edo Online Bankaren bidez
  - o Kontuari lotutako txartelen bidez egindako ordainketa-eragiketak

**LOTUTAKO ZERBITZUA: ZORDUNKETA-TXARTELA**

Kontuaren titularrak kontuari lotutako zordunketa-txartela eskatu ahal izango du, eskudirua ateratzeko eta ordainketa-eragiketak egiteko.

Zerbitzuari buruzko kontratu aurreko informazioan eta kontratu-informazioan zehazten dira zerbitzuaren erabilera-baldintzak, kontserbazioa eta kostua.

### **LOTUTAKO ZERBITZUA: KREDITU-TXARTELA**

Kontuaren titularrak kontuari lotutako kreditu-txartela eskatu ahal izango du, eskudirua ateratzeko eta ordainketa-eragiketak egiteko.

Zerbitzuari buruzko kontratu aurreko informazioan eta kontratu-informazioan zehazten dira zerbitzuaren erabilera-baldintzak, kontserbazioa eta kostua.

### **KONTRATUAREN IRAUPENA**

***Super LK kontuaren kontratuak iraupen mugagabea du.***

### **KOMISIOAK ETA GASTUAK**

- Mantentze komisioa: 25 € hiru hilean behin.

Kontuak honako mantentze-komisioa izango du titularretako batek ere baldintza hauek betetzen ez dituztenean:

1. Titularretako batek kontuan oinarritzko banku-eragiketak helbideratuta badauzka. Baldintza hori betetzat emango da titularretako **batek eskakizun hauek guztiak** betetzen dituztenean:

a) Nomina edo langabezia-prestazio kontzeptupean jasotako diru-sarrerak, azken hiru irakurketetatik gutxienez bitan, ondorengo zehaztapen hauen arabera:

- Hileko irakurketak: titular bakoitzaren sarreraren irakurketa egongo da hileroko. Irakurketa horrek aurreko hilaren 15etik hil horren 14ra bitarteko egunak hartuko ditu barne.
- Konpentzazio Elektronikoko Nazio Sistemaren (SNCEk), Gizarte Segurantzaren, Eskuduntza duen Erakunde ofizial baten edo zuzenean lansaria ordaintzen duen enpresaren eskutik jasotako nomina edo langabezia-prestazio kontzeptupean jasotako diru sarrerak soilik hartuko dira kontutan.
- Hileko irakurketa bakoitzeko sarreraren baturak, gutxienez, 600 € eman behar ditu.

b) Likidatu beharreko aldiari dagozkion hiru hiletatik, gutxienez, bitan, 100 eurotik gorako erosketak egin behar dira txartel bidez.

Bezero autonomoen kasuan, aurreko betebeharez gain, Gizarte Segurantzaren autonomoen ordainagiria Super LK Kontuan helbideratua izatea ere eskatuko da.

2. Hilean gutxienez 400 €-ko erretiro-pentsioa Laboral Kutxan helbideratuta izatea. Gizarte Segurantzaren bidez edo eskumena duen erakunde ofizial baten bidez jasotako erretiro-pentsioak bakarrik hartuko dira kontuan.

3. Gutxienez 30.000 eurotako guztizko aurrezkiak aurkeztea Laboral Kutxako aurrezki edo inbertsioetan (ordainketa-kontuak, aurrezki-kontuak, eperako gordailuak, inbertsio-funtsak, pensio/aurreikuspen-planak, balioak, aurrezki-aseguruak edo laboral Kutxako kapital soziala). Ondorio horietarako, likidazioaren aurreko hilabeteko azken egun balioduneko saldoa hartuko da kontuan.

4. Kontuaren titularretako batek urtebete baino gutxiagoko antzintasuna izatea Laboral Kutxaren bezero gisa.

Bestalde, hiruhilekoko batez besteko saldo hartzekoduna 1.000,00 eurotik gorakoa izanez gero ere, kontua komisio horretatik salbuetsita geratuko da, nahiz eta lehen adierazitako baldintzak ez bete.

- Interes-tasa zorduna: Zorpekoaren kasuan, interes zordunak balorazio-daten arabera likidatuko dira egunero, eta 3 hilean behin zordunduko dira.

Tasa nominala: % 7,298 **UTBa: % 7,500**

**Informazio gisa esan behar da, urteko tasa baliokidea (UTBa) Espainiako Bankuaren 5/2012 Zirkularrean -2012ko uztailaren 6ko BOE- adierazten denaren arabera kalkulatu dela.**

Kontsumitzaileei aplikagarria zaien UTB zorduna mugatuta dago: gehienez ere diruaren tasa legala bider 2,5 izango da.

Likidazio-aldia: hiru hilean behingoa

Likidazio-egunak: 02-28, 05-31, 08-31, 11-30

- Informazioa bidaltzearen komisioa:
    - o Kontuko mugimenduei buruzko informazioa Postamail zerbitzuaren bidez bidaltzea doakoa da.
    - o Kontuko mugimenduei buruzko informazioa ohiko postaren bidez bidaltzeagatik komisio hauek kobratuko dira, aukeratutako maiztasunaren arabera:
      - o Hilean behin: doan.
      - o Egunean behin (\*):3 € likidazio-aldiko.
      - o Hamabost egunean behin (\*\*):2 € likidazio-aldiko.
      - o Egunean eta hamabostean behin bidaltzeagatik, gainera, 0,34 €-ko komisioa kobratuko da laburpen bakoitzeko. Likidazio-aldi bakoitzeko lehen 5 laburpenak salbuetsita egongo dira.
- (\* ) Laburpenean jasotzeko moduko mugimenduak dauden egunetan.  
(\*\* ) Hil bakoitzaren 1ean eta 15ean, edo, jaiegunak badira, hurrengo egun baliodunetan.

**ORDAINKETA**

ITNa: % 0 (UTBa: % 0)

**Informazio gisa esan behar da, urteko tasa baliokidea (UTBa) Espainiako Bankuaren 5/2012 Zirkularrean -2012ko uztailaren 6ko BOE- adierazten denaren arabera kalkulatu dela.****KONTRATUA SUNTSIARAZTEA**

LABORAL Kutxak eskubidea izango du kontratua edonoiz suntsiarazteko. Kasu horretan, 2 hilabete lehenago jakinaraziko zaio titularretako edozeini, eta, epealdi hori igarotakoan, kontuak ez du interesik sortuko. Bezeroak saldoa eskuratu beharko du, zenbateko osoa hartuko duen txeke edo ordainagiri bakar baten bidez.

Titularrak kontua ixteko eskatu ahal izango du, aurrez ohartarazi gabe; halere, LABORAL Kutxak eskubidea izango du kontuaren likidazioa eta saldoaren itzulketa geroratzeko, kontuari lotutako ordainbideen bidez indarrean dauden eragiketak zorduntzeko behar den denboran. Titularrak itzuli egin beharko ditu libreta, txeke-liburuxka, kreditu- eta zordunketa-txartelak eta kontuan helbideratutako gainerako ordainbideak.

**BALDINTZAK ALDATZEA**

LABORAL Kutxak eskubidea izango du komisio berriak ezartzeko edo agiri honetan jasotako interes-tasak aldatzeko. Aldaketak, bezeroarentzat onuragarriagoak ez badira, indarrean jarri baino 2 hilabete lehenago ezagutaraziko zaizkio, ohiko postaren bidez, titularretako edozeinek LABORAL Kutxari adierazi dion helbide elektronikora bidalitako mezuaren bidez edo edozein baliabide elektronikoko edo telematikoren bidez, hala nola telefono mugikorrera bidalitako SMS bidez edota jakinarazpena egiten den unean legez indarrean dagoen beste prozedura baten bidez.

Bezeroak uko egiten dio, berariaz, adierazitakoa ez den beste abisu-epe bati.

Titularrak aldaketa horiek onartzen dituela ulertuko da, aldaketak indarrean jartzeko proposatutako egunaren aurretik bere desadostasuna adierazten ez badu.

Titularrak aldaketa horiek ez dituela onartzen adierazten badu aldaketok indarrean jartzeko proposatutako egunaren aurretik, kontratua inolako kosturik gabe suntsiarazi ahal izango du, eta aldaketa indarrean jartzeko aurreikusitako egunaren aurreko edozein unetatik aurrera izango du eragina.

#### **GORDAILUEN BERME-FUNTSA**

CAJA LABORAL POPULAR COOP. de CRÉDITO 2011ko urriaren 14ko 16/2011 Errege Lege Dekretuaren bidez sortutako Gordailuen Berme Funtsari dago atxikita, eta gordailugile bakoitzari 100.000 euroko zenbatekoa bermatuko dio, gehienez, dirutan egindako gordailuetarako.

#### **BANKU-KONTUAK INTSULDATZEKO PRINTZIBIO ERKIDEAK**

CAJA LABORAL POPULAR COOP. de CRÉDITO «Banku-kontuak lekualdatzeko printzipio erkideetara» atxikita dago. Europako Banku Industriaren Batzordeak (EBICEk) Europar Batasun osoan aplikatzeko sortutako printzipioak dira horiek.